

# Bero-beroan

## Ertzaintza eta euskara

HIZKUNTZA Eskubideen Behatokiak kritikatu duenez, Ertzaintzak egin duen lan eskaintza publikoan 260 lanpostutatik 108tan baino ez da eskatuko derrigorrezko lehen hizkuntz eskakizuna. Puntuazio guztiaren %9,09 izango litzateke euskara jakitea. Aralarrek ere lan eskaintzak euskararekiko duen jarrera salatu du. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak berriz, salaketak gaitzetsi ditu eta esan du lan eskaintzak ez duela euskara gutxiesten eta euskarari bultzada bat emango diotela.

Bitxiena zera da: deialdiak Europako hizkuntz ofizialak jakitea baloratuko duela lehen aldiz, berdin txekiera nola frantsesa.

## “Bat” aldizkaria Txillardegiren omenez

BAT Soziolinguistika aldizkariak Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren omenezko artikulu sorta bildu du 71. zenbakian. Besteren artean egile hauen artikuluak irakur daitezke: Xabier Isasi, Imanol Esnaola, Pilartxo Etxeberria, Jac-



queline Urla, Paulo Agirrebalzategi, Erramun Baxok eta Ainhoa Beola. Bestelako artikulua ere badira, hala nola, Iñaki Gaminderen *Hiztunen generoaren eta adinaren pertzepzioak* eta Feli Etxeberriaren *Gazte unibertsitarioen bizipenak hizkuntza ikaskuntzan*.

## Haurrei etxeko lanekin laguntzeko

BIARRITZEKO AEK-Gau Eskola elkarteak eskolan euskara ikasten ari diren haurren gurasoentzat ikastaro berezia prestatu du. Eguneroko bizitzako egoerei aurre egin ahal izateko, etxeko lanetan laguntzeko oinarritzko kontuak ikasiko dituzte urritik hasita.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## BAHEA

## TALAIAN

### Lopezzen kexak

PPren eskutik Ajuriaeneara sartu zenetik, Lopez lehendakariak gauza bakarra egin du abertzalearen kontrako errepresioa erabiltzeaz gain: kexatzea, esanez ez duela maniobratzeko tarterik krisi ekonomikoari aurre egiteko, lehengo Gobernuak, Ibarretxerenak, urteko aurrekontuaren %70 baino gehiago gastatu zuelako. Bere buruari "sozialista" deitzen dion Gobernuak, eta ondorioz omen ezkerrekoak, ezin du aurreko Gobernuak egindako kudeaketa aitzakia hartu justifikatzeko krisi sozioekonomikoaren aurrean geldirik dagoela. Bere posizioa aukeratutako Gobernu bazkideak baldintzatzen du. PPK politika sozioekonomiko kapitalista mantentzen duenez, ez dio utziko tarterik ezkerreko "gurarietarako" eta ondorioz ez dio utziko tarterik aurrera eramateko politika ekonomiko "sozialista" eta progresista. Beraz, politika "sozialista" eta progresista zentzuduna praktikatzeko, ondo egingo luke Lopez eta bere Gobernuak bere zilborre- ra begiratu eta aztertzea, serioski eta zintotasunez, nora doan PP bezalako alderdi kapitalistarekin. PPK krisiaren kontrako neurriak babestuko ditu, baina enpresari eta bankariei mesede egiteko.

Testuinguru horretan, patronalaren eta sindikatuen arteko elkarriketa sozialerako mahaia sortzea, propagandarako marketin hutsa besterik ez da. Tamalez, marketin horri laguntzen diote CCOO eta UGT bezalako sindikatuek ez baitaie axola ELA eta LABek osatzen duten gehiengo sindikal abertzalea ez dagoen mahaian egotea. Ez du balio argudiatzea hor egoteari uko egin diotela. Bilatu eta aztertu ukazio horren arrazoiak, eta lagundu horiek konpontzen, Lopez eta Patronalarekin argakia ateratzeko prest azaldu aurretik.

Juan Mari Arregi

Rosa Diez Urrestarazu Euskadi Irratiko zuzendariak *Berrian esanak*: “Nafarroako eta Iparraldeko informazio lokala emango dugu. Euskaraz hitz egiten den leku guztietakoa izango da informazioa (...) Euskara gure kulturaren parte da, eta ez du ideologiarik: denona da”.

Urko abeslariak *Diario de Noticias-en esanak*: “Gazteek ez dute euskaraz abestu nahi gosez hiltzeko; hala doakigu, Duncan Dhu eta La Oreja de Van Gogh”.

Iban Arantzabalek *Etxebarri* blogean esanak telebista autonomikoetatik ere iragarkiak kentzeaz: “Hau da, kalte egiten digu iragarriak euskaraz entzuteak? Ni ezezkoan nago, kalterik ez dago, eta gainera, euskarazko bideogintzarako, telebistagintzarako eta ikus-entzunezko produktuetarako atzerapausoa litzatekeela Euskal Telebistak muzin egitea iragarkiei. Gure merkatu txikia ahuldu egingo litzateke”.